

**BERMEOKO NESTOR BASTERRETxea ARETOAREN KUDEAKETA INTEGRALA
KONTRATAZIO MAHAIA**

A K T E A

EGUNA : 2015eko abenduaren 7an
LEKUA : Gizarte eta Kultura Etxean
HASIERA ORDUA : 8:05
AMAIERA ORDUA : 8:35
PARTAIDEAK : **INGERU ASTUI ZARRAGA** (Lehendakaria)
BENITO IBARROLAZA MUNITIZ
EDURNE MARTINEZ TORRE
KARMELE MUÑO A ARRIGAIN

IDAZKARIA : **MIRENLUR JORGE ASTIAZARAN**

Eskaintza bakarra aurkeztu da, hain zuzen be, Urbietta Egaña S.L.ren izenean.

Edurne Martinez andreak adierazo dau gai honi buruz kontuhartzaile andrearen 2015eko uztailaren 28 datako txostena ez dala aldekoa.

Benito Ibarrolaza jaunak galdetu dau kontratazioa ezlegezkoa dan eta Karmele Muñoa andreak azaldu dau, kontuhartzaileak prozedimenduaren formagaz desadostasun batzuk daukazala baina kontratazioa legezkoa dala.

A kartazala zabaldu da eta Karmele Muñoa andreak eskaintzan aurkeztu dan dokumentazio guztia aztertu eta era egokian aurkeztu dala egiaztatu dau.

Karmele Muñoa andreak B kartazala zabaldu dau eta edukina era egokian aurkeztu dala egiaztatu dau. Kulturako Teknikari-Koordinatzaileak B kartazaleko edukinari buruzko txostena egin beharko dau.

Karmele Muñoa andreak C kartazala zabaldu dau eta proposamen ekonomikoa era egokian aurkeztu dala egiaztatu dau. Teknikari-Koordinatzaileak C kartazaleko edukinari buruzko txostena egin beharko dau.

Karmele Muñoa andreak kontratazioa burutzeko jarraitu beharreko prozedimenduari buruzko azalpenak emon dauz.

BATZORDEKO IDAZKARIA

